

## 2020ko hirugarren hiruhilekoan esportazioen prezioak % 0,2 jaitsi ziren aurreko hiruhilekoaren aldean

### *Inportazioen prezioak, aldiz, % 2,5 igo ziren aldi beraren aldean*

2020ko hirugarren hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 0,2ko beherakada izan dute 2020ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera. Baldin konparaketa egiten badugu iazko hiruhileko berarekin, % 0,1eko murrizketa izan da.

Inportazioen prezioak % 2,5 igo ziren aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, baina % 6,8 jaitsi ziren 2019ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

**Esportazioen** barruan, esportazio energetikoen prezioak % 4,2 igo ziren 2020ko bigarren hiruhilekoaren aldean, eta ez-energetikoenak % 0,9 jaitsi. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ondasun energetikoen prezioak % 9,8 jaitsi dira, eta ez-energetikoenak % 0,6.

**Inportazioen** kasuan, produktu energetikoen prezioen indizea % 18,7 igo zen hiruhileko arteko tasan, eta ez-energetikoenak % 0,5 jaitsi. Urte arteko alderaketan, prezioak % 17,4 jaitsi ziren produktu energetikoetan eta % 3,4 ez-energetikoetan.

### **Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, erabilera taldearen eta xede ekonomikoaren arabera (%). III/2020**

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
<b>Indize orokorra</b>	<b>-0,2</b>	<b>-1,0</b>	<b>2,5</b>	<b>-6,8</b>
Produktu energetikoak	4,2	-9,8	18,7	-17,4
Produktu ez-energetikoak	-0,9	-0,6	-0,5	-3,4
Kontsumo-ondasunak	-1,4	4,6	0,4	1,2
Kapital-ondasunak	-1,1	-10,6	-3,7	-8,7
Bitarteko-ondasunak	0,6	0,6	3,2	-7,4

#### **Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI**

**Helburu ekonomikoaren** arabera sailkapenari dagokionez, nabarmentzekoak dira Bitarteko Ondasunen esportazioen prezioen igoera txikia (% 0,6) eta Kapital Ondasunen (-% 1,1) eta Kontsumo Ondasunen (-% 1,4) jaitsierak, aurreko hiruhilekoaren aldean hori dena. Urte arteko terminoetan, hazkunde bera izan dute Bitarteko Ondasunek (% 0,6); aldiz, Kapital Ondasunek behera egin dute (-% 10,6), eta Kontsumo Ondasunek gora (% 4,6).

Analisia inportazioetarantz bideratuz, ikus daiteke ezen Kapital Ondasunen prezioak jaitsi direla hala hiruhileko artean (-% 3,7) nola urte artean ere (-% 8,7), baina, ordea, Kontsumo Ondasunen kasuan guztiz kontrakoa gertatu dela, % 0,4ko eta % 1,2ko igoerekin, hurrenez hurren. Bitarteko Ondasunei dagokienez, aldakuntzak zeinu ezberdinekoak izan dira, positiboak hiruhileko arteko alderaketan (% 3,2), baina negatiboak aurreko urtearen aldean (-% 7,4).

Kontuan hartuta **eremu geografikoak** zeinetara baitoaz esportazioak, 2020ko bigarren hiruhilekoaren aldean prezioak jaitsi egin ziren ELGAn (-% 0,8) eta EB-28n (-% 0,7), baina igo egin ziren Euro-eremuan (% 0,9) eta Munduko Gainerakoan (% 1,7). Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, nabarmentzekoa da prezioen % 13,1eko jaitsiera Munduko Gainerakoaren izeneko eremu ekonomikoan.


### **Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, ekonomikoak-eremua aintzat hartuta (%). III/2020**

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
<b>Indize orokorra</b>	<b>-0,2</b>	<b>-1,0</b>	<b>2,5</b>	<b>-6,8</b>
Euro eremua	0,9	-0,2	-0,5	-3,6
EB-28	-0,7	0,3	0,0	-2,8
ELGE	-0,8	1,5	3,4	-1,5
Munduko gainerakoa	1,7	-13,1	0,0	-18,8

**Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI**

Inportazioei dagokienez, Munduko Gainerakoaren portaera ere azpimarratu behar da, urte arteko % 18,8ko jaitsiera handia izan baitu. Aipaturiko eremuaz gainera, eta urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, Euro-eremuko prezioek % 0,5eko beherakada izan dute. Gainerako eremu ekonomikoetan, beherakadak nabarmenagoak izan dira aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta Euro-eremuko azpimarratu behar da (-% 3,6).

## Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

### Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62

Euskal AEko Kanpo Merkataritzako Balio Unitarioaren Indizeak-BUI. Prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Kanpo Merkataritzako Balio Unitarioaren Indizeak-BUI. Datu-bankua.